

AURREKONTU “ESKISITOAK” ORAIN!

Donostiako Eskubide Sozialen Kartatik, idatzi hau sinatzen duten hamaika eragile eta auzo elkarteekin batera, salatu nahi dugu martxoaren 13an Donostiako udalbatzan bozkatuko diren aurrekontuek ez dietela erantzuten herritarren oinarrizko beharrei. Eneko Goia alkateak adierazi zuen norbere auzoan zahartu nahi izatea “eskisitoa” zela, eta hain zuzen, hori da aldarrikatu nahi duguna: gure auzoan modu duin batean bizitzea ahalbidetuko digun politika publiko baterako aurrekontuak. **Aurrekontu “eskisitoak” nahi ditugu!**

Izan ere, geroz eta gehiago hitz egiten da Donostiako “hiri-krisiaz”. Turismoan, etxebizitza espekulazioan, prekarietatean eta gutxi batzuen etekina bilatzen duten makro-proiektuetan oinarrituz ezin da herritarren ongizatea bermatuko duen hiri bat eraiki. **Donostia oparoaren mitoa erori da.**

Ez da harritzekoa, hemen bizi ahal izateko oinarrizko beharrianak garestitu baitira. Ehunka familia gehitu dira argindarra, neurrigabeko alokairua eta hipoteka ezin ordaindurik daudenen zerrendara. Elikagaien bankuko ilara luzeak, arrakala digitala, funts putreak, etxegabetzeak, hustutzeak, aterperik ere ez duten pertsonak, migratzaile eta gazteak, eta bien bitartean etxebizitzaren prezioa goranzkoan. Donostia etxebizitza-larrialdian da, eta horri aurre egiteko aurrekontu eraldatzaileak behar ditugu. **Ez da nahikoa udalbatzak “Donostia etxegabetzerik gabeko hiria” izendatzea, neurriak jarri behar dira horretarako.**

Artean, hiriaren aktualitateko gatazka klima-aldaketaren aurrean udal-gobernuak adierazten duen jarrera lotsagabea da: surf-parkea, lurraren urbanizazio basatia, Basque Culinary Center berria, ibilgailu pribatu bidezko mugikortasuna, metroaren zulo eta zulaketak, Abiadura Handiko Trena, azalera handiko merkatal-guneen irekierak, airearen kalitatea nabarmen okertuz, erdigune hiperkomertzializatuaren kontsumismoa, hondakinen birziklapen maila apala eta errausketaren ondoriozko kutsadura... zein udal gobernuak trantsizio energetikoaren izenean abiatu nahi dituen “postalezko Donostia” sustatzeko hainbat proiektu aipatzeagatik.

Aspalditik datozen eta egiturazkoak diren problematika ezberdinei erantzuteko borondate politiko ezaren aurrean, geroz eta gehiago gara udal politika publikoek norabide aldaketa bat behar dutela eta herritarren ongizatea erdigunean izango duten politika ekonomiko eta publikoak egin behar direla exijitzen dugunok.

Donostiaren noraeza merkantilista alboratu eta urjentziaz bizitza erdigunean jarriko duen udal aurrekontuen eredu baten alde egiteko, herritar guztiontzako etorkizun duina bermatzeko, Donostiako Eskubide Sozialen Kartak eta beste hamaika eragilek gure eskakizunez osatutako manifestu hau sinatzen dugu.

Horrekin batera, dei egiten dugu **martxoaren 13an, astelehena, goizeko 11.00etan Injentea kalean** egingo dugun mobilizazioan parte hartzera. Donostiako udalak onartuko dituen udal aurrekontuak salatzeke.